

# GHEES-CEESPV.REN GOBERNU BATZORDEKO

## HAUTESKUNDEEN DEIALDIA

Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoa-Colegio de Educadoras y Educadores Sociales del País Vasco (GHEE-CEESPV) Gobernu Batzordeak Elkargoaren Estatutuen arabera, 2023ko urriaren 23eko bileran **2024ko urtarrilaren 10ean** Gobernu Batzordeko hauteskundeetara deia egitea erabaki du **2024ko martxoaren 16an, larunbata, 10:30ean, GHEE-CEESPVren egoitzan Luzarra,14-16,4.,2Dpt Bilbon eta bideobatzarrez**

Elkargoaren Estatutuen 44tik 54ra artikuluen arabera, hauteskunde prozesua horrela garatuko da:

### 1.- HAUTATUAK ETA HAUTESLEAK IZATEKO BALDINTZAK

Elkargokide guztiek, **2024ko otsailaren 10ean** urtebete kidetuta egonez gero, hautatuak eta hautesleak izateko eskubidea dute, beti ere elkargoaren betekizunak beteta badituzte, edo zehapen baten eraginpean ez badaude, edo orokorrean elkargo-jarduera etenda ez badute, eta eskubideak mugatuta ez badituzte.

### 2.- HAUTAGAI-ZERRENDIA

Hautagai-zerrenda osatua izango da eta karguak adierazita hautagai bakoitzak zein kargutara aurkezten den adierazi beharko du (presidentzia, presidentziordea, diruzaintza, idazkaritza eta gutxienez bi bokal)

Elkargokideak ezingo dira aurkeztu leku edo zerrenda batera baino gehiagora.

### HAUTAGAI-ZERRENDEN AURKEZPENA

**2024ko otsailaren 10a izango** da hautagai-zerrendak aurkezteko azken data.

Aurkezteko tokia Elkargoko egoitzan, Luzarra,k. 14-16, 4. 2 Dpt 48014 Bilbo.

GHEE-CEESPVko Gobernu Batzordeari zuzendutako idatziaren bitartez egingo da. (Elkargoaren egoitzan eskuragarri izango dira betetzeko inprimakiak)

Hautagai-zerrendak osatu egin beharko dira, karguak adierazita (presidentzia, presidentziordea, diruzaintza, idazkaritza eta gutxienez bi bokal) eta **elkargokideen %3ren (25) abala izan beharko dute** (Osatzeko inprimakia Elkargoko bulegoan eskuragarri izango dituzte)

**2024ko otsailaren 15a baino lehen**, aurkeztutako baliozko hautagai-zerrendak aldarrikatuko ditu.

Hautagaien aldarrikapenaren aurka edozein elkargokidek aurkeztu ahal izango du erreklamazioa hiru eguneko epean.

Hautagai-zerrenda bakarra egonez gero, berretsi egin beharko da bozketa eginez.

### 3.- HAUTESKUNDE-MAHAIA

Hauteskunde-mahia 4 elkargokide osatatuta egongo da, ordezkoekin batera izendatuta, GHEE-CEESPVko Presideteak zuzenduta hautesleen artean, hautagai kideak ez ezik, zozketaren bitartez.

### 4.- BOZKETA ETA ZENBAKETA-SISTEMA

Botoa ematekoan, mahaikideen aurrean identifikatu egingo dira, eta prezintaturiko hautestontzi batean sartuko dute botoa.

Elkargodiek posta ziurtatuaz erabiliz eman dezakete botoa, Elkargoaren Egoitzara eskatuz **martxoaren 8ra arte. 2024ko martxoaren 12ra arte** (posta sigiluan), hau barne, igorritako botoak jasoko dira.

Hautagai-zerrenda bakoitzari boto bat mango zaio hautestontzian sartutako baliozko papeleta bakoitzeko. Baliogabetzat hartuko dira papeleta apurtuak, zuzenduak edo aldatuak.

Zenbaketa-sistema jendeaurrean egingo da.

### 5.- HAUTAGAI-ZERRENDA HAUTATUA ZEIN IZAN DEN JAKINARAZTE

Baliiodun boto gehien lortu dituen hautagai-zerrenda izango da garaile aldarrikatua.

Aldarrikapena egin eta gehienez hilabeteko epean hartuko ditu karguak beregan Gobernu Batzorde berriak.

### 6.- ERREKLAMAZIOAK

Hauteskundeen arloan Gobernu Batzordeak hartutako erabakien aurka, edozein elkargokidek erabili ahal izango du estatutu hauen 73.tik 76.ra artikuluetan ezarritako errekurtsio-sistema.